



MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI **BURUZKO ABISUA 5779/2023 Zkia**

Sortutako data eta ordu lokala: 2023/08/09, 10:30.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2023/08/09, 19:30
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

◆ **Zergatia:**

Muturreko Tenperaturak: Tenperatura oso altuak
Prezipitazio handia
Itsasaldeko Arriskua: Enbatak
Baso-sute arriskua

◆ **Muturreko Fenomenoen Iragarpena:**

Asteazkena, hilak 9:

- **Alarma Gorria** muturreko tenperatura oso altuengatik barnealdean 15etatik 18etara ordu lokala.

Temperatura maximoak 40 °C ingurukoak izan daitezke Kantauri barnealdean, Ebro ondo eskualdean eta iragate-zonan. Arratsaldean, tenperatura 40 °C baino altuagoa izan daiteke EAE barnealdeko zenbait lekutan, bereziki Kantauri barnealdearen hegoaldean.

- **Alerta Laranja** muturreko tenperatura oso altuengatik 12etatik 21etara ordu lokala.

Temperatura maximoak 34 °C ingurukoak izan daitezke kostaldean, eta 40 °C ingurukoak Kantauri barnealdean, Ebro ondo eskualdean eta iragate-zonan. Arratsaldean, tenperatura 40 °C baino altuagoa izan daiteke EAE barnealdeko zenbait lekutan. Gauean, tenperatura nahiko altua izango da; kostaldean 22-27 °C ingurukoa, Kantauri barnealdean 24-28 °C ingurukoak eta 28-30 °C ingurukoa Ebro ondo eskualdean eta iragate-zonan. Arratsaldean eta gauean ez da bazterzen hauts-gandua agertzea.

- **Abisu Horia** prezipitazio handiagatik 20etatik 24etara ordu lokala.

Ordubetean 15 l/m² baino gehiago pila litezke lekuren batean. Trumoi-ekaitzak izan daitezke eta ekaitz-guneetan haize-boladak gogorrak edo oso gogorrak izan litezke (80 km/h-tik gorakoak), txingorra botatzea baztertu gabe (2-3 cm-ko tamaina izan dezake). Trumoi-ekaitzak hego-mendebaldetik ipar-ekialdera mugituko dira; ekaitzak jotzekotan eremu horietan tenperatura jaitsi egingo litzateke.

- **Abisu Horia** itsasaldeko arriskua: enbatagatik 20etatik 24etara ordu lokala.

Haizeak bat-batean eta zakar mendebal/ipar-mendebaldera egin dezake eta haizearen norabide aldaketa mendebaldetik ekialdera hedatuko litzateke kostaldean. Haize-boladek 60-80 km/h-ko abiadura gaindi dezakete. Kostaldean norabide aldaketak tenperaturaren jaitsiera eragingo du mendebaldetik ekialdera, 5-10 °C ingurukoa ordubetean.

- **Abisu Horia** baso-sute arriskuagatik barnealdean 12etatik 21etara ordu lokala.

Baso-sute arriskua nahiko handia da, hezetasun baxuagatik eta tenperatura altuagatik.

◆ **Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

*Larrialdiei Aurre Egiteko
eta Meteorologiako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

*Dirección de Atención de Emergencias
y Meteorología*

@112_SOSDeiak @Euskalmet